



Aurten, 35 urte bete dira Mikel, Patxi eta Aitor Zabalza, Idoia Aierbe, Manuel Vizcay, eta Ion Arretxe atxilotu zituztenetik. Urte horietan guztietan Altzako Mikel Zabalza Herri Ekimenak hainbat jarduera antolatu izan ditu egia, justizia eta erreparazioa eskatzeko.

Urteak badoaz, eta oraindik gertaera honen gainean lainoak daude, gezur eta gertaeren nahasketarekin sortutako lainoak. Hori dela eta, bada garaia gai honetaz egia, justizia, aitortza eta oroitzapena egin dadin.

Aurten ere, Mikel Zabalza Herri Ekimenak hainbat jarduera antolatu ditu:

- Azaroak 23, emakumea eta torturari buruzko **mahai-ingurua**.
- Abenduak 12, eguerdian, **martxa** Idoia Aierbe oroitzeko, Herreratik Bidebietara.

Mikelen atxiloketa eta heriotza gogoratu eta salatze bide horretan, aurten ere nabarmentzeko eta pozteko bi arrazoi ditugu, bi ekimen berri ditugulako:

Batetik, “Non dago Mikel?” dokumentala errealitate sendoa da jada, eta emanaldiak ugaritzeko dinamika abiatu da. Dokumentala ezinbesteko tresna da egia eta memoria atxikitze. Egileei gure eskerrak eta zoriona egindako esfortzuagatik.

Eta bestetik, gaur hemen iragartzen dugu Mikel Zabalzaren omenezko eskultura jarrita dagoen eremua beste arte lan batekin osatuko duela Altzako Mikel Zabalza Herri Ekimenak. Aurrerantzean **MIKELEN TXOKOA** deituko diogu, eta Mikelen eta harekin atxilotutakoen memoria gordetzeko gunea izango da. Gogoan izan behar da Donostiako Udalak Mikelen senideei hitz eman ziela bere memoria oroitzeko ekimenak babestuko zituela, eta mozioa onartu zuela horren inguruan. Hainbatetan Udalak atzera bota izan baditu ere Mikel oroitzeko egin dizkiogun eskaerak, azkenean, eta Udal Barrutiko aurrekontu parte hartzaileen bidetik, “Mikelen txokoa” egin egingo da. 35 urte itxoin behar izan dugu Udalaren eta herri ekimenaren arteko lankidetzaz lortzeko; gaitz erdi.

Beraz, agerraldi honen bidez, **dei egiten diegu herritarrei abenduaren 19an, eguerdiko 12etan**, egingo den inaugurazioan parte har dezaten. Ekitaldian Covid-19ari aurre egiteko protokoloa beteko da.

Ez dugu bukatu nahi Herri Ekimenaren xedeak berretsi gabe. 35 urte pasatu dira, eta pixkanaka bada ere, emaitza txikiak lortzen ari dira, bai. Baina egia ofiziala gezurraren gainean eraikia segitzen du, eta ardura politikoa duten instituzioek ez dute aitortzarik egin; bi horiek gabe, justizia eta erreparazioa egitea zaila da oso. Oroitu nahi dugu epaitegietan gelditu eta erdi ahaztuta segitzen duela kasuak. Lana egiten segitzea besterik ez zaigu geratzen, eta horretan jarraituko dugu, Mikelentzat, torturatu guztientzat, haien senideentzat eta lagunentzat egia, justizia, aitortza eta oroimena egon dadin.

Gora Mikel! Ez dugu atzenduko!

Torturarik EZ, inori ez, inoiz ez, inon EZ!



Este año se cumplen 35 años de la detención de Mikel, Patxi y Aitor Zabalza, Idoia Aierbe, Manuel Vizcay, y Ion Arretxe. Durante todos estos años Iniciativa Popular Mikel Zabalza de Altza ha organizado diversas actividades para exigir verdad, justicia y reparación.

Han pasado años, pero sobre estos sucesos todavía hay demasiadas dudas, mentiras y silencio. Por ello, es hora de que se avance en la verdad, justicia, reconocimiento y reparación.

Un año más, Mikel Zabalza Herri Ekimena ha organizado varias actividades:

- 23/XI, Mesa redonda sobre mujer y tortura.
- 12/XII, al mediodía, marcha desde Herrera a Bidebieta para recordar a Idoia Aierbe.

En este camino de recordar y denunciar la detención y muerte de Mikel, este año tenemos dos nuevas iniciativas destacables:

Por un lado, el documental “Non dago Mikel?”, que es ya una realidad sólida. El documental es una herramienta imprescindible para divulgar la verdad y la memoria. Nuestro agradecimiento a los creadores por el esfuerzo realizado.

Y por otro lado, hoy anunciamos aquí que la Iniciativa Popular Mikel Zabalza de Altza completará el espacio en el que está instalada la escultura en homenaje a Mikel Zabalza con otra obra artística. A partir de ahora le llamaremos MIKELEN TXOKOA y será el lugar donde se guardará la memoria de Mikel y las personas detenidas con él. Hay que recordar que el Ayuntamiento de Donostia se comprometió con los familiares de Mikel a apoyar las iniciativas en su memoria y aprobó una moción al respecto. A pesar de que en varias ocasiones el Ayto. ha rechazado las peticiones que le hemos realizado en ese sentido, finalmente, y por medio de los presupuestos participativos del Distrito municipal, se va a realizar el “Txoko de Mikel”. Hemos tenido que esperar 35 años para conseguir la colaboración entre el Ayuntamiento y la iniciativa popular.

Por lo tanto, mediante esta comparecencia hacemos un llamamiento a la ciudadanía a participar en la inauguración que tendrá lugar el próximo día 19 de diciembre, a las 12:00 horas. En el acto se cumplirá el protocolo ante el Covid-19.

No queremos terminar sin ratificar los objetivos de la Iniciativa Popular. Han pasado 35 años y, aunque poco a poco se están obteniendo pequeños resultados, la verdad oficial sigue construida sobre la mentira, y las instituciones no han hecho reconocimiento; esos dos aspectos hacen muy difícil hacer justicia y reparación. Queremos recordar que el caso sigue parado y medio olvidado en los juzgados.

Es por ello que sólo nos queda seguir trabajando, y en ello vamos a seguir, por Mikel, por todas las y los torturados, sus familiares y amigos y amigas, para que se haga verdad, justicia, reconocimiento y reparación.